



IRIZPEN ZK.: D19-012

ZERBITZU SANITARIOAK EMATEKO ATXIKIMENDU-HITZARMEN BATETIK ERATORRITAKO DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Osakidetza-Euskal Osasun Erakundeak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatu dio irizpen bat egiteko, Onkologikoa Fundazioak dituen betebeharrei buruz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin hainbat zerbitzu sanitario emateko izenpetuta duen atxikimendu hitzarmenaren ondorioz esku artean dituen datu pertsonalen tratamenduak direla eta.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderari erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderari erantzutea”.

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egindako kontsultak galdetzen du ea zein eginbehar dagokion, datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, Osakidetza-Euskal Osasun Erakundeari, eta zein Onkologikoa Fundazioari, 2018ko abenduaren 27an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Fundación Onkologikoa Fundazioak izenpetu zuten atxikimendu hitzarmenaz geroztik.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak hainbat modu aurreikusten ditu esparru pribatuaren eta esparru publikoaren artean zerbitzu sanitarioak emateko, eta modu bat da atxikimendu hitzarmenak izenpetzea. Atxikimendu hitzarmenak legearen 66. eta 67. artikuluetan daude araututa.

14/1986 Legearen 67.1 artikuluekin bat, sare publikoarekiko atxikimendua hitzarmen berezien bidez egin beharko da. Edozelan ere, esparru publikori atxikitako esparru pribatuak mantendu egingo ditu bere zentroen titulartasuna eta bertan lan egiten duten pertsonen lan harremanen titulartasuna ere bai.



Irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren bidez zehazten dira zerbitzu sanitarioak emateko titulartasun pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko zentro sanitarioekin atxikimendu-hitzarmen espezifikoak izenpetzeko betekizunak eta prozedurak (2018ko irailaren 7ko EHAA, 173 zk.).

127/2018 Dekretuaren 2. artikulua arabera, dekretuan xedatutakoaren arabera izenpetzen diren atxikimendu hitzarmenek ekarriko duten ondorioa izango da asistentzi-integrazioa, integrazio klinikoa eta integrazio funtzionala titulartasun publikoko zerbitzu sanitarioekin, artikulua hiru atalean xedatutakoarekin bat.

Hala eta guztiz ere, 127/2018 Dekretuaren 3. artikulua aukera ematen die atxikitako zentroeiei, Osakidetza-Euskal Osasun Erakundearekin hitzartutako osasun jardueraz gain, izaera pribatuko bestelako osasun jardura batzuk emateko, baina izaera osagarriarekin eman beharko dituzte, eta ezin izango dute aldaketarik eragin hitzartutako jardueraren funtzionamenduan.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariaren abenduaren 28ko 169/2018 Ebazpenak xedatzen du argitara ematea Onkologikoa Fundazioarekin 2018ko abenduaren 27an sinatutako atxikimendu-hitzarmena, zerbitzu sanitarioak emateko.

Hitzarmenaren bigarren klausulak arautzen ditu hitzarmenaren eraginpean geratzen den Onkologikoa zentro sanitarioaren jarduerak. Hirugarren klausulak Onkologikoa zentro sanitarioko beste jardura batzuk arautzen ditu, tartean honakoak: asistentzia onkologikoa eman ahal izango du araubide pribatuan, beste zeinahi entitate, erakunde edo pertsona fisikoren kontura; eta, oraingoz, Onkologikoa osasun-zentroak asistentzia-jardura pribatu ez-onkologikoa ematen ere jarraitu ahal izango du, harik eta hitzarmen hau izenpetu aurretik hartutako kontratu-obligazioek irauten duten arte.

II

Osasun Sailak eta Onkologikoa Fundazioak hitzartutako atxikimendu hitzarmenari ezarri beharreko esparru juridikoa azaldu eta gero, kontsultan egin dizkiguten galderei erantzungo diegu segidan.

Lehenengo eta behin, argitu behar da zein uste duen Bulegoak dela tratamenduaren arduraduna eta zein tratamendu-eragilea atxikimendu hitzarmenaren ondorioz sortu den harremanean.

Tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen kontzeptuak datuak babesteko oinarritzko eskubidearen osagai nagusiak dira, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (aurrerantzean Erregelamendu Orokorra) daude definituta.

Erregelamendu Orokorren 4.7 artikulua dio tratamenduaren arduraduna dela bakarrik edo beste batzuekin batera, tratamenduaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea.

Eta 4. artikuluko 8. zenbakiak dio tratamendu-eragilea dela tratamenduaren arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea.



Tratamenduaren arduraduna eta tratamendu-eragilea kategorizatzeke, kontuan hartu behar da zentro pribatuak sare publikora lotzen direla, eta horrek esan nahi du zentro horiek osasun sare publikoan txerutzen direla. eta, ondorioz, lotutako zentro bakoitza geratzen dela osasun zentro publikoek duten antolamendu eta funtzionamendu araubide beraren menpe, zentroaren titulartasunari eta lan harremanei buruzko alderdiak izan ezik.

Datu babesaren ikuspegiaren arabera, irailaren 4ko 127/2918 Dekretuaren 27. artikuluan dago aurreikusita:

“27. artikulua.- Historia klinikoak eskuratzea.

1.– Atxikimendu-hitzarmenaren babespean emandako osasun-asistentziaren ondorioz eskuratutako osasun-datuak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak artatutako pertsonen historia klinikoan jasoko dira.

2.– Atxikitako zentroko profesionalek historia klinikoan ageri den dokumentazioa eskuratzeko, martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuaren 13. artikulua dioenari jarraituko zaio (historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa)”.

Araudia ikusita, esan daiteke zein den alderdi bakoitzak duen tokia datu pertsonalen tratamenduari dagokionez. Osakidetza da Euskal Osasun Zerbitzuaren historia klinikoetan sartzan diren datuen tratamenduaren arduraduna eta Onkologikoa Fundazioa izango da tratamendu-eragilea, hain zuzen ere, Onkologikoak ente publikoaren kontura tratatuko dituelako datu pertsonalak. Alde biek izenpetutako atxikimendu hitzarmenaren ondorioz, Onkologikoa Fundazioko profesional sanitarioek zuzenean eskuratu ahal izango dituzte Osakidetzako erabiltzaileen historia klinikoak eta bertan jasotako informazio klinikoa. Gainera, atxikimendu hitzarmenaren ondorioz ematen den osasun arreta dela-eta Onkologikoa Fundazioko profesionalek sortzen duten informazioa Osakidetzako historia klinikoetan jaso beharko da.

Edozelan ere, atxikimendu hitzarmena denez Osakidetzaren eta Onkologikoa Fundazioaren arteko tratamendu-enkargua eratzen duen tresna, bertan jaso beharko dira datu-tratamenduek eduki ohi dituzten betekizun guztiak (xedea, iraupena, izaera, tratamenduaren helburua, datu pertsonalen mota, interesdunen kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak), Erregelamendu Orokorren 28.3 artikulua agintzen dituenak, hain zuzen, besteak beste, arduradunaren jarraibideak dokumentatuta eta segurtasun neurriak.

III

Kontsulta-idazkian egin duten beste galdera da ea zein legezko betebeharrak dituen Onkologikoa Fundazioak osasun zerbitzuen emaila pribatua izateagatik, eta ea nola uztartu daitezkeen zerbitzu sanitarioak emateko araubide pribatua eta Onkologikoa Fundazioak, atxikimendu hitzarmena sinatzen duenean, bera gain hartzen duen araubide publikoa.

Lehenago esan dugunez, hitzartutako jardueraz gain, osasun zentro pribatuek, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarekin hitzartutako jarduna ez ezik, bestelako asistentzia-jardun pribatua ere eskaini ahal izango dute, beste berrmatzaile batzuen kontura (irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren 3.2 artikulua). Hala dago berariaz jasota Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Fundación Onkologikoa Fundazioaren artean 2018ko abenduaren 27an sinatutako atxikimendu hitzarmenaren hirugarren klausulan.



Jardun pribatuak ez dio eragiten atxikimendu hitzarmeneko jardunari; eta, beraz, Osakidetzak zuzenean ala bestelako tresnen bidez —adibidez, atxikimendu hitzarmena— ematen duen zerbitzu sanitario publikoari ere ez. Ondorioz, Onkologikoa Fundazioak araubide pribatuan, beste zeinahi entitate, erakunde edo pertsona fisikoren kontura ematen duen asistentzia sanitariotik lortutako datu pertsonalak Onkologikoa Fundazioaren ardura izango dira eta ez beste inorena, eta ezin izango dira zuzenean jaso Osakidetzaren historia klinikoetan.

Onkologikoa Fundazioa denez tratamendu horien arduraduna, nahitaez hartu beharko ditu babes bereziko kategoria duten datu horien konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko neurri guztiak bai arlo teknikoan bai antolakuntzan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 3a